

KANALAK

Gure enpresak eskainitako zerbitzua ezagutzera eramateko **webgune bat** sortuko du bertan informazio zehatza emanaz gure zerbitzuen inguruan. Webgunean gure enpresaren funtzionamendua eta nondik norakoak azalduko ditugu. Baita gure zerbitzuak lortzeko zer den egin beharrekoa zehazki adieraziko dugu.

Aipagarria iruditzen zaigu bestalde, **sare sozialetan** ere arituko garela. Gure enpresaren zerbitzuak edozein publikori zabaldu edo hurbildu nahi dizkiogu. Bertan, gure proiektuaren inguruko informazioa azalduko dugu. Horrez gain, **bezero eta bezero potentzialekin** harremanetan mantentzea da gure xede nagusia. Horretarako, sare sozialetan, antsietate eta depresioari buruzko artikuluak jarriko ditugu guztiak jakintza minimo izan dezaten gai hauen inguruan. Baita sare sozialez baliatuko gara, ondo irten diren kasuen berri emateko eta horrela, jendea animatu nahi dugu gure proiektuan parte hartzera. Oro har, kontziente gara sare sozialek dituzten **arriskuez**, eta kasu horiek **anonimoak** izango dira, eta betiere bezeroaren baimena lortzen dugunean publikatuko ditugu. Gure helburu nagusia gure produktu eta zerbitzuak saltzea da horrela, jendeak laguntza izan dezan, helburu guztiz soziala dugu.

Bestalde, behin gure bezeroekin harremanetan hasita, **email bidez komunikatuko gara, telefonoz eta aurrez-aurreko** bilerekin komunikatuko gara erakunde publiko eta pribatuekin (institutuak). Aurrez-aurreko horietan zehaztuko dugu zertan datzan gure zerbitzuak. Hemen, bezeroaren **ebaluazio fasean** egongo gara, eta gure helburua **erosketa ixtea** izango litzateke.

Behin ikastetxeekin lanketa hasitakoan, hau da, **entrega fasean**, ikastetxe desberdinetara joateko asmoa dugu gure zerbitzuak eskaintzeko ezinbestekoa da gutariko norbait ikastetxera joatea.

Azkenik, esan bezala, banan banako zerbitzuak emango dizkiegu bezeroei baina hauek **online** izango dira, behintzat hasiera batean. Denborarekin kontsulta edo bulego bat irekitzeko aukera ere ikusten dugu.